



Gaurtik aurrera *Euskaraldia* 11 egun euskaraz ariketa sozialean parte hartzeko norbanakoen izen-emate epea irekita dago beasaingarrentzako

Beasaingo Udalak euskararen normalizazioaren alde hizkuntza ohiturak aldatzeko babestu eta bultzatutako Euskaraldiak iaz hasi zituen bere lehen prestakuntza lanak herrian. Gaur izenematea ireki bada ere, irailaren 21ean kale animazioaren bitartez ekingo dio Beasaingo taldeak egitasmo hau herriararen artean ezagutarazteari. Hori horrela, ostiraleroko, irailaren 21etik azaroaren 23 arte, informazio mahaiak jarriko dira Zubimuzu plazan, bertan izena emateko aukera eskainiz.

Honekin guztiarekin beasaingarriak azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte “Ahobizi” eta “Belarriprest” izatera gonbidatu nahi dira. Hau da, *ahobiziak* euskaraz hitz egiteko gai direnak izango dira eta *belarriprestak* euskaraz hitzegiten ez badakite ere ulertzeko eta entzuteko prest agertuko dira. Ohitura linguistikoak aldatu eta euskaraz 11 egunez aritzea izango da helburu nagusia, azaroaren 23a eta abenduaren 3a bitartean.

Euskaraldia ezagutarazi eta parte hartzeko ekimena

Beasaingo Euskaraldiaren talde eragilea irailaren 21ean, ostirala, arratsaldeko 17:30n Beasaingo plazan elkartuko da Kale animatzaileekin; hauek “Ahobizi eta Belarriprest” izatea zer den

Euskaraldian parte hartzeko izenematea ireki da Beasainen

Azken eguneratzea: Osteguna, 20 Iraila 2018 17:35

Argitaratua: Osteguna, 20 Iraila 2018 17:35

azalduko diete herritarrei. Ondoren, 18:30tan etorriko dira trikitilariak eta 19:00tan hasiko da kalejira. Izen-emate mahaia ere bertan izango da.

Beasaingo Udalak babestu eta bultzatuta Euskaraldiaren talde eragilea lanean dabil iaztik herriko elkarte eta eragile guztiekin. Helburua, ahalik eta herritar gehien hurbiltzea egitasmo honetan parte hartzera da. Izenematea Beasaingo Euskaraldiaren webean ere egin daiteke <https://beasain.euskaraldia.eus/> .

Irakurle taldea ere Euskaraldian

Dagoeneko badira elkarte batzuk Euskaraldiaren egitarauan euren jarduerarekin zerikusia duten ekintzak proposatu dituztenak herritarrei. Irakurle taldeak esaterako atzo burutu zuen bilera udaletxean azaroan egingo duen bi liburuei buruzko irakurketa aprobetxatuz herritarrek gonbidatzeko.

